



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2023ko abuztuaren 4koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Arabako Parke Teknologikoko jarduera ekonomikoetarako determinaziorik gabeko lurzoru urbanizagarriko 1. sektorea antolamendu xehakatuarekin sektorizatzeke planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiria egiten duena.

AURREKARIAK

2023ko apirilaren 3an, de Vitoria-Gasteizko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Arabako Parke Teknologikoko jarduera ekonomikoetarako determinaziorik gabeko lurzoru urbanizagarriko 1. sektorea antolamendu xehakatuarekin sektorizatzeke planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiria egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Honako dokumentu hauek erantsi zitzaizkion eskabideari: planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak) V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen 2023ko maiatzaren 12an, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientearen dago jasota. Era berean, izapidea hasi zela jakinarazi zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari.

Halaber, espedientearen jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horren gaineko interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki irizitako oharrek egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio nabarmenak izateko arriskua dakartenean; horretarako, ingurumen-babesaren maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), baita haien aldaketa eta berrikuspenei ere, legeko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek eskatuta prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.



Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasierako eskabideari erantsi beharreko dokumentuak eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ingurumen-ondorioetarako soilik, Arabako Parke Teknologikoko jardura ekonomikoetarako determinaziorik gabeko lurzoru urbanizagarriko 1. sektorea antolamendu xehakatuarekin sektorizatze planaren (aurrerantzean, plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Planaren xedea da Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak Miñaoko Parke Teknologikoaren inguruan aurreikusten dituen jardura ekonomikoetarako lurzoru-erreserbaren 1. sektorea programatzea, Arabako Parke Teknologikoaren zabalkuntza gisa, jardura ekonomiko industrial eta tertziarioetarako lurzoru-eskariaren dibertsifikazioa aseko duten lurzatiak zehaztuz.

Eremua garatzeko, planak 3 mugaketa-aukera planteatzen ditu eta, azkenik, Vitoria-Gasteizko HAPO berriaren aurrerapenean jasotakoarekin bat datorrena hautatzen du, plangintza orokor berriaren helburu orokorretara, lurraren ezaugarri naturaletara eta egungo parke teknologikoaren antolamendura ondoen egokitzen dena dela iritzita. Azalerako okupazioari dagokionez gehien jasotzen den aukera da; izan ere, jardura ekonomikoetarako lurzoru-erreserbaren 293 ha-etatik 904.617,20 m² okupatzen dira, eta gainerako azalerak udalaren lurzoru urbanizaezinera itzultzen dira. Antolamendu xehatuari dagokionez, barne-antolamenduko bi aukera aztertu ondoren, azalera handieneko lurzatiak sortzea ahalbidetzen duena garatzea erabaki du planak.

Jarraian, planak proposatutako antolamendua laburbiltzen da:

- 842.137,03 m²-ko azalera antolatu da jardura ekonomikoetarako, eta 5.307 m²-koa bide-sarearen tokiko sistemarako. Espazio libreen sistema orokorretarako 55.013,93 m² izango dira eta 2.159,24 m², sistema orokor hidrauliko gisa.
- Sare hidrologikoarekiko atzerapenek sortutako lur-zerrenda leheneratu egiten da, ibilguen eta jardura ekonomikoetarako lurzatiaren artean korridore ekologiko bat eta moteltze-iragazki berde bat sortzeko.
- Eremuaren antolamendu xehatua egungo parke teknologikoan dauden azpiegiturak optimizatzeko irizpideari jarraikiz planteatzen da: sare elektrikoa eta energia fotovoltaikoko sarea, saneamendu-sareak edo kolektore orokorrak, ureztatze-putzua eta abar.

- Egungo parke teknologikoaren eta zabalkundearen arteko eremuan espazio libreak eta berdeguneak bilduko dira, eta korridore berde jarraitua sortuko da, egungo parke teknologikoko berdeguneak zabaltze-eremu berriekin lotuko dituen.

Hasierako dokumentu estrategikoak adierazten du plana garatzeko ez dela beharrezkoa izango plan partzial bat izapidetu eta onartzea; izan ere, Sektorizatze Planak berak jasoko du eremuaren antolamendu xehatua, eta bertan egikaritze-unitate bat edo batzuk definituko dira.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasuneko irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030 Ingurumeneko Esparru Programa eraldatzeko proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak.

Halaber, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuta.
- Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- Energia aurrezte, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- Aire garbia bermatzea, baita zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- Natura-arriskuak minimizatzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-eremu garrantzitsuak

Planaren eremuak 904.617,20 m²-ko azalera hartzen du Arabako Parke Teknologikoaren ondoan, Miñao (Vitoria-Gasteiz, Araba), AP-1 autobideko, A-1 autobideko, Vitoria-Gasteizko aireportuko eta N-240 errepideko komunikazio-lotunean.

Eremua, Vitoria-Gasteiztik 5 km-ra, Ebroko Demarkazio Hidrografikoak kudeatzen duen Zadorraren Unitate Hidrologikoan sartzen da. Horren barruan igarotzen dira Errexaltza erreka eta haren izenik gabeko ibaiadar bat, Zadorra ibaira isurtzen den Santa Engrazia ibaiaren ibaiadarrak biak; ez da ur-punturik identifikatzen. EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren kartografiaren arabera, Errexaltza erreka 0 mailan sailkatzen da; ingurumen-osagaiari dagokionez, erreka ez da zonifikatzen.

Gaur egun, planak antolatutako lurretan nekazaritza-jarduerak (laboreak) garatzen dira. Eremua bat dator Onura Publikoko 689. zenbakiko mendiarekin.

Hasierako Dokumentu Estrategikoaren (HDE) arabera (geoEuskadiko landarediaren mapan oinarritzen da), eremuan garatzen den landaredia batez ere laboreak eta hiri-parkeak/lorategiak dira, eta noizean behin beste formazio minoritario batzuetako orban lineal sakabanatu batzuk aurki daitezke, hala nola «arantzadi edo sasitzak», «ipurudiak-ihiztidun larrea», «erkamezti subkantauriarra» eta/edo «harizti eutrofo subatlantiko». Gainera, ur-ibilguen ertzean eta azterketa-eremuko ibarbideetan dagoen zuhaixka-zerrenda bat osatuz, Batasunaren intereseko habitat hau identifikatu da: «txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin» (4090 BIH).

Eremua ez dator bat espezie mehatxatuak kudeatzeko planetan sartutako espazioekin, baina uhalde enara (*Riparia riparia*) egon daiteke pasabidean, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan «kaltebera» kategoriarekin sartutako hegazia baita, Santa Engrazia ibaia eta haren ibaiadarra, Betolatza erreka, hurbil baitaude, espeziearen kudeaketa-planen sartuta, eta parke teknologikotik hurbil dauden eremuetan aipamenak baitaude. Eremua Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez EAEko eremuan aitortutako abifaunaren babes-eremuetatik kanpo dago.

Eremuko paisaia «lehorreko nekazaritza-lurrak dira, ibai-eremuan», Vitoria-Gasteizko ikuspen-arroan dago, paisaia-balio oso txikia du, eta bertako paisaia oso arrunta da. Paisaia ez dago katalogatuta.

Planaren eremuak ez du kointzidentziarik Natura 2000 Sareko espazioekin, naturagune babestuekin, EAEko korridore ekologikoen sareko elementuekin edo azpiegitura berdearen elementuekin, edo mehatxatutako fauna-espezieen kudeaketa-planen arabera antolatutako espazioekin. Era berean, ez dago kointzidentziarik Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko eremu sentikorrekin, ezta interes geologikoko puntu edo eremuekin ere.

Eremuaren mugen barruan kalifikatutako edo inbentarioan sartutako kultura-ondareko elementurik identifikatzen ez bada ere, eremuaren mugakide da ustezko zona arkeologikotzat hartutako Uribarriko San Andresko herrixka eta tenplua.

Balizko ingurumen-arriskuei dagokionez, eremua Gasteizko lurpeko ur-masa alubialaren sektoretik gertu dago, akuiferoen kutsadurarekiko oso kalteberatasun handiko eremu batean. Bestalde, eremua kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruekin bat ez badator ere, horren ondoan 01059-01336 kodeko kokalekua identifikatzen da, «zabortegi» motakoa.

Bestalde, geoEuskadin jasotako informazioaren arabera, eremuan garatzen diren zuhaixka eta zuhaitz urriek baso-sutearen arrisku handia dute.

Egoera akustikoari dagokionez, HDEak ez du eremuaren kalitate akustikoaren baloraziorik egiten aurreikusitako erabilera berriei heltzeko, eta ez du eragin akustikoaren azterketarik egiten. Analisi hori ingurumen-azterketa estrategikoan sartu beharko da.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Planaren xede den eremuan ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumen-araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauei buruzkoa: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; natura, lurzorua eta ondare kulturala kontserbatzea; eta kutsadura akustikoa.

Nolanahi ere, ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko. Esparruaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidetan jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

Natura-ondarea

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren ustez, Sektorizatze Planak proposatutako antolamendua natura-ondarean inpaktu negatibo nabarmenik sortu gabe gara daiteke. Hala ere, planaren beraren ingurumen-helburuak betetzen direla bermatzeko, komenigarritzat jotzen du espazio libreetan bertako zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak landatzea, haien funtzionaltasun ekologikoa areagotzeko eta indartzeko. Ildo horretan, eskatzen du ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) berdegune horiek behar bezala tratatzeko eta leheneratzeko neurri zehatzak identifika ditzala, espezieak, landaketa-esparru egokia, mantentze-lanak eta abar adierazita, hirigintza-dokumentuan txerta daitezen eta, ondoren, xehetasunez garatu ahal izan daitezen 1. sektorearen urbanizazio-proiektuari lotutako leheneratze-proiektu batean.

Kultura-ondareari dagokionez

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak planaren eremuaren mugakide diren ustezko zona arkeologiko bi identifikatu ditu: 91. UAG: Uribarriko San Andres herrixka eta tenplua; eta 245. BAG: Gernikako San Pedro herrixka eta tenplua. Horiek ustezko zona arkeologikoaren deklarazioa daukate, Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 1997ko irailaren 23ko ebazpenean jaso bezala (1997ko urriaren 13ko EHAA, 129. zk.). Bere txostenean, aipatutako Zuzendaritzak adierazten du bi guneetan mugaketaren gakoa «E» dela (ageriko egiturarik gabea), eta interes arkeologikoa hura babesteko mugatutako eremuaren zorupean zentratzen dela, kokagune horien jatorriari, ezaugarriei eta okupazio-sekuentziari buruzko informazioa ematen duten hondakinak kontserba daitezkeelako. Horregatik, txostenari erantzen zaion mapan mugatutako eremuei eragiten dieten etorkizuneko obrei dagokionez, prebentzio- eta zuzenketa-neurrien artean sartu beharko da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua betetzea. Artikulu horrek, gutxienez, aldeztu aurretik azterketa arkeologiko bat egitea eskatzen du, eta, horren bidez, Arabako Foru Aldundiak erabaki beharko du proiektu arkeologiko bat egin behar ote den.

Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko eta Arkitektonikoaren Zerbitzuak adierazi du planaren xede den eremuan ez dagoela balio historiko-kulturalagatik babestutako elementurik edo higiezinik, eta, beraz, ez dagoela eragozpenik plana gauzatzeko.

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, 1. sektoreak Vitoria-Gasteizko 91. zenbakiko UAGarekin (Uribarri Arakako San Andres) muga egiten du eta, beraz, bertako jarduketak ezartzean, planoetan sartu beharko da haren kokapena, eta kontrol arkeologiko bat ezarri beharko da 91. UAGaren iparraldetik mugakide den eremuan egin beharreko lur-mugimenduei buruz, katastroko honako lurzati hauei baitagokie: 39 poligonoa 119, 120, 365, 376 eta 375 lurzatiak; horrez gain, eta edozein kasutan, lanak egiten diren bitartean aurkikuntza arkeologikorik eginez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 74. artikulua), txostena egin eta neurri zuzentzaile egokiak eman ditzan, bai lurzati horietan, bai gainerakoetan.

Lurrazaleko eta lurpeko uren babesa eta arriskuak

URAk, bere txostenean, eremua zeharkatzen duen Errexaltza erreken balioa nabarmentzen du. Ibaiertzeko landaredi-zerrenda bat du, tamaina oneko aleekin. Planteatzen diren bi alternatibetan, Errexaltza erreken ertzetan eta sektorearen ipar-ekialdean iparraldetik hegoaldera lotzen den ibaiadarraren ertzetan, Espazio Libreen Sistema Orokor eta Lokalen zati bat dago, eta ibilguen zortasun-eremuaren 5 metroak hartzen dituzte lehenengoek, eta azalera handixeagoa bigarrenek.

Jarduketak integratzeko aurreikusitako neurriak egokituz jotzen badira ere, beharrezkotzat jotzen da Sektorizatze Plana izapidetzeko hurrengo fasean honako informazio hau sartzea:

- Sektorean ezarri nahi den eta planteatzen diren bi aukeretan oso okupazio desberdina duen Azpiegituren Tokiko Sistema zertan datzan zehaztu beharko da.
- Ingurumena leheneratzeko proiektu bat txertatu beharko da (eta dagokion aurrekontu-saila), eremua zeharkatzen duten bi erreken ertzetan espezieak landatzeko esparrua eta espezieak barne hartzen dituen.
- Drainatze jasangarriko hiri-sistemak txertatzea eta sustatzea proposatzen da, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan (JPHE, 126 ter artikulua) eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean (E.4 epigrafea) ezarritakoaren arabera.
- Aurreikusten diren garapen proposatuen litezkeen hornidura-eskari berrien etorkizuneko zenbatespena. Era berean, dokumentazio horretan sartu beharko da AMVISA erakunde kudeatzailearen txostena, garapen berrien hornidura bermatzeko lehendik dauden hornidura-azpiegituren nahikotasunari buruzkoa.
- Aurreikusitako zabaltzea lehendik dagoen sistemarekin lotzea aurreikusten bada, plan honen hurrengo izapidetze-fasean, HUAren erakunde kudeatzailearen txosten bat gehitu beharko zaio dokumentazioari, hondakin-uren tratamendu egokia bermatzeko dauden azpiegituren nahikotasunari buruzkoa, edo, azpiegitura horiek nahikoak ez badira, ildo horretan izan daitezkeen arazoak konpontzeko aurreikuspenak jasoko dituen.

Gainera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostenean, ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko zenbait alderdi jasotzen dira, besteak beste:

- Ingurune hidrikoaren inbentarioa (lurrazaleko eta lurpeko ur-masak) eta planaren garapenaren ondoriozko afekzio nagusiak garatzea.
- Ingurune hidrikoan izan ditzakeen ondorioak, nahi gabeko ondorioak, alboko ondorioak, metaketak edo sinergiak, negatiboak zein positiboak, identifikatzea. Programaren ondorioz ur-lasterren erregimenean eta uraldietan gertatzen diren afekzioen azterketa.
- Kontuan hartu behar da Uraren Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, plana bateragarria izan dadin uraren kudeaketa publikoarekin. Gainera, bateragarria izan behar du Plan Hidrologiko Nazionalarekin eta arroko plan hidrologikoekin. Halaber, kontuan hartu beharko da abenduaren 22ko 390/1988 Errege Dekretua, sortutako kutsaduratik urak babesteari buruzko 1991ko abenduaren 12ko 91/676/EEE Zuzentaraua garatzen duena.
- Plana aplikatzeak ingurune hidrikoan izan lezakeen edozein ondorio negatibo garrantzitsu prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak.
- Arreta handiz jardun beharko da obren fasean, eremu horretan dauden ur-ibilguri ez eragiteko (Errexaltza erreka eta Betolaza iturriaren erreka). Arreta berezia jarri beharko da isurketarekin eta sare hidrologikora solido esekiak helaraztearekin, kutsadura mota oro saihestuz.

Bere txostenaren eranskinean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Uren Legean eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan jasotako eremuetan egin beharreko jarduketei dagokienez kontuan hartu beharreko jarraibideak jasotzen ditu.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuak honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak ondorengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak planaren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat izango du. Gainera, azterketak laburki azaldu beharko du nola hartu diren kontuan, plana egitean, txosten honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jasotako helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak.

b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren edo ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, kontsulta daitezkeen gunerako esteka ere txertatuta.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoa.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta. Jasotako txostenetako batek adierazten duen bezala, zehaztu behar da, besteak beste, zertan datzan sektorean ezarri nahi den eta planteatzen diren bi aukeretan oso okupazio desberdina duen Tokiko Azpiegitura Sistema.

Horri dagokionez, behar adina xehetasun-mailarekin deskribatuko da planak azkenean zer garapen-alternatiba onartu duen, eta zer hirigintza-soluzio hartu den ere justifikatu egin beharko da.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak, hala badagokio, plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean ondorioak izan ditzaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, ekintza aipatu behar bada ere.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edota -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera eta planean ingurumen-ondorio nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak adierazi beharko dira. Informazio kartografikoa atxiki beharko da eta, behintzat, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa eta jarduketak guztien kokapena, .pdf (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berriuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana prestatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta honako hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba ere hartuko da kontuan –esku ez hartzeko alternatiba–, erreferentziatzat haxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea, planaren proposamenak aplikatu ezean.

Kontuan hartu beharreko plangintza-alternatibetako bat garapen jasagarriaren printzipioa modu zehatzean integratuko duena izatea gomendatzen da: «Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzorua erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez».

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera –alderdi nagusiak azalduta– planaren afekzio-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneetara mugatuta.

Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, zer estekatatik sar daitekeen lana osorik kontsultatzeko gunera.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (azaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak jakinaraziko dira, egonez gero; esaterako, ibai-ibilguak, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta landaredia, flora eta fauna autoktonoak. Datuak emango dira egungo elementuen kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, egungo presio eta mehatxuei eta plana gauzatuta areagotu daitezkeenei buruz.

Illo horretan, aztertutako antolamendu-alternatibak eragingo duen landaredia deskribatu beharko da, eta landaredi mota bakoitzerako zehaztu beharko da, bereziki Batasunaren intereseko habitatari dagokionez: «txilardi oromediterraneo endemikoak elorri-triskarekin» (4090 BIH), azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa.

Eremuan dauden landaredi-espezie aloktono inbaditzaile guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik intereseko elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lurzoruak identifikatuko dira; ildo horretan, planaren eremuaren ondoan identifikatutako «zabortegi» motako 01059-01336 kodeko kokalekuaren mugaketa jasoko da.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean gera daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Horrez gain, aipatu egin beharko da zein arau-xedapenek ematen dioten kalifikazioa eta babesak kultura-ondasunari.

Azterketan, Uribarriko (Araka) 91. San Andres herrixka eta tenplua eta Gernikako 245. San Pedro herrixka eta tenplua ustezko zona arkeologikoen planoko mugaketa jasoko da.

f. Apartatu honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira; hala nola, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), biztanleguneak (halakorik bada), eragin daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da planaren eraginpeko esparruan, eta laburki jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, planean jasota dauden aldaketan ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeke. Apartatu hau idazteko, txosten honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu dezaketen alderdiak jabari publiko hidraulikoaren babesarekin, ondare arkeologikoaren eta interes komunitarioko habitaten babesarekin, eta lurzoru kutsatuei eragiteko arriskuarekin dute zerikusia.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeke, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: nahi ez diren ondorioak, metaketakoak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Planean horrela deskribatutako ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako afekzio hauek ebaluatuko dira:

- Errexaltza errekarri eta haren izenik gabeko ibaiadarrari, eta jabari publiko hidraulikoaren babeserako zortasun-eremuari, eragin dakioken ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereziki, Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa bete beharko da, aurreikusitako jarduketek ibaiaren ibilguarekin gauzatu behar dituzten atzerapenei dagokienez.

- Indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozko afekzioak, eta soberakinak sortzearen ondoriozkoak. Ildo horretan, kontuan hartuko da jarduketa horiek eragina izan dezaketela zoruetan edo lurpeko akuiferoetan, istripuzko isurketen ondorioz. Gai hori garrantzi berezikotzat jotzen da eremuan, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia dela eta.

Arreta handiz jardun beharko da obren fasean, eremu horretan dauden ur-ibilguei ez eragiteko (Errexaltza erreka eta Betolaza iturriaren erreka). Arreta berezia jarri beharko da isurketarekin eta sare hidrologikora solido esekiak helaraztearekin, kutsadura mota oro saihestuz.

Bestalde, arreta berezia jarriko zaie kutsatuta egon daitezkeen 01059-01336 kodeko «zabortegi» motako lurzoruen kokalekuaren mugakide den muga egiten diren lur-mugimenduei; izan ere, lur-mugimenduek irauten duten bitartean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen zantzuak sor litezke aipatutako kokalekuaren kanpoko eremuetan.

Kontuan hartuko da, halaber, indusketek eta lur-mugimenduek eragina izan lezaketela planaren eremuaren ondoan dagoen Uribarriko San Andres herrixka eta tenplua izeneko 91. ustezko zona arkeologikoaren inguruko zorupean dauden interes arkeologikoko aztarnetan.

- Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan izango dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira, bereziki, «txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin» (4090 BIH).
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa). Egiaztatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari jarraikiz; gainera, ingurumen-azterketa estrategikoak honako informazio hau jaso beharko du:

1. Soinu-iturrien analisia, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Diseinu-aukeren azterketa bat, arauaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
3. Kalitate akustikoko helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen den antolamendu motara egokitua.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorioak baloratzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.

- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - ✓ Natura, kultura eta paisaiaren alorreko ezaugarri berezirik ote dagoen.
 - ✓ Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditzeko moduan.
 - ✓ Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira eta, horretarako, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala dagokionean, ondorio horien aurreikuspenetan dagoen ziurgabetasun-maila zehaztuko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografikoki lokalizatuko dira eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio garrantzitsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek aurreikusitako ingurumen-ondorioekiko koherenteak izan beharko dute. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2022-2027) ezarritakoa. Hartara, eskatutako gutxieneko atzerapenak ezarriko dira, eta saihestu beharko dira bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek leheneratzea, biziberritzea eta hobetzea.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak zehaztasun nahikoarekin identifikatuko ditu ingurune hidrikoa babesteko neurriak, obren fasean, azaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko, kontuan hartuta Errexaltza erreka eta haren izenik gabeko ibaiadarra daudela, eta eremuko akuiferoaren kutsadurarekiko kalteberatasuna altua dela. Besteak beste:
 - o Ibilguaren 5 metroko zortasun-zerrendak egoera naturalean eta libre utziko dira; balizatuko dira, eremu horretan ibilgailurik ez sartzeko, materialik eta betegarririk ez pilatzeko, eta etxola, ontzi, itxitura, kutxatila eta bestelakorik ez jartzeko (behin-behinekoak zein behin betikoak).

- o Drainatze naturaleko sarera partikula txikiak isurtzea gutxitzeko, ibilgu ondoan solido esekiei eusteko sistemak proiektatuko dira.
 - o Makinen mantentze- eta aparkatze-eremuak iragazgaiztuko dira, kutsatzaileak lurrian ez iragazteko, eta drainatze perimetral bat instalatuko da, kutsatuta egon daitezkeen ur horiek behar bezala biltzeko eta kudeatzeko.
- Hirigintza-garapen berriak behar-beharrezko diren azaleretara mugatu beharko du zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko ditu (zoladura iragazkorak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko du, halaber.
- Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabe eratuko diren espazio libre-etako eremuak birlandatzea xedatuko da, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
- «Ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan» bat idatzi beharko da, Sektorizatze Planaren ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Ildo horretan, Azterketak berdeguneak behar bezala tratatzeko eta leheneratzeko neurri zehatzak identifikatuko ditu, espezieak, landaketa-esparru egokia, mantentze-lanak eta abar adierazita, Sektorizatze Planean txerta daitezen eta, ondoren, xehetasunez garatu ahal izan daitezen 1. Sektorearen etorkizuneko urbanizazio-proiektuari lotutako leheneratze-proiektu batean.
- Pasaia eta ingurumena leheneratzeko eta integratzeko neurriak zehazteko, kontuan hartuko dira lhobek plazaratutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan» adierazten diren irizpideak.
- Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeke jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira.
- Uribarri Arakako San Andresko herrixka eta tenplua izeneko 91. ustezko zona arkeologikoaren mugakide den eremuan egin beharreko lur-mugimenduen kontrol arkeologikoa egitea adieraziko da. Eremu hori honako katastro-lurzati hauei dagokie: 39 poligonoa 119, 120, 365, 376 eta 375 lurzatiak eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari lanak egin bitartean egon daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko berehala jakinaraztea, txostena egin dezan eta neurri zuzentzaile egokiak eman ditzan, bai lurzati horietan, bai gainerakoetan.
- Neurriak hartuko dira inbentarioko kokalekuaren mugakide den mugan egin beharreko indusketen jarraipena egiteko, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituztelako edo dituztelako. Izan ere, lur-mugimenduek irauten duten bitartean, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen zantzuak sor litezke aipatutako kokalekuaren kanpoaldean. Hala, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa beteko da.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Behar izanez gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikulua eta hurrengoak aplikatuz egin beharreko eragin akustikoaren azterketaren arabera, kalitate akustikoaren helburuak lortzeko beharrezko neurriak ezarriko dira, eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, eskatzen duenez, ingurumen-txosten estrategikoak jasoko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede

horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldeketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta berariaz zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

c. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

d. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da eta, horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Alderdi hauek kontrolatzea izango dute helburu neurri horiek:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, ondorio horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1. apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informaziorako eta kontsultetarako izapideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun baliouduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura jarriko ditu planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, URA-Uraren Euskal Agentziaren bitartez.
- Ihobe.
- Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena bidali zuen.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren Natura Ondarearen Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendien Zerbitzua.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzkizaleak Elkartea (Eguzki).
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- Arabako Natur Institutua.
- Áncora elkartea.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumenteak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena.– Ebazpen hau Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023 abuztuak 4a

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo